

ESTATUTUAK

ASOCIACIÓN NAVARRA DE ESCRITORES/AS / NAFAR IDAZLEEN ELKARTEA

I. TITULUA ELKARTEAREN IZENDAPEN ETA ERREGIMENA

1. Art.- Izendapena.

1. Estatutu hauei jarraikiz, ASOCIACIÓN NAVARRA DE ESCRITORES/AS - NAFAR IDAZLEEN ELKARTEA (ANE-NIE)-ek 1/2002 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, ezarritakoarekin bat egiten du, Estatutu hauetan agertzen ez den gainerakoan ezarriko diren Elkartearen eskubide eta garapen arauen erregulatzailerik den heinean.

2. Elkarteak izaera juridikoa eta lanerako erabateko gaitasuna du, irabazi-asmorik gabe, apolitiko eta akonfesionala da eta bere ekintzek irizpide demokratikoei men egiten diete, aipatu Lege Organikoan ezarritakoaren eskueran.

2. Art.- Helburuak.

1. Elkarteak hurrengo helburuak izanen ditu:

a) Nafar literaturaren sustapen eta dibulgazioa bere adierazpen eta bertako hizkuntza guztietan. Jendartean Nafarroa Garaian garatutako jarduera literarioaren eta honen inplikazio, ondorio sozial, ekonomiko, intelektual eta gizatiarren inguruko interesa sustatzea.

b) Foru komunitateko jendartea bertako jarduera literarioaren inguruko datu zorrotz eta informazio fidagarri hornitzea.

c) Ekimenen antolakuntza eta Foru Komunitateko literaturaren difusioarendako materialen sorkuntza zein ekimenen antolakuntzaren bidez "marka" -ren sorkuntza helburu izanik nafar literatura sustatzea. Sustatuz, era berean, haren inguruko ikerketa eta garapenerako jarduerak.

d) Irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua kontuan izanik giza kolektiboetan nafar literatura sustatzea.

e) Instituzio foral, estatu edo tokiko izaera duten entitateen edota estatu edo europar mailako plataforma eta elkartearen aitzinean autore nafarrak sustatzea, non sorkuntza literario zein artistikoa autoreen eskubideen defentsan antolatzen den.

f) Autoreen interes eta eskubideen defentsa, kontuan harturik, hauen kasuan, aholkularitza legal, ekonomiko zein fiskala.

2. Helburu hauek betetzeko, hurrengo jarduerak egingen dira: mota guztietako ekimenak, harremanak, bilkurak, kongresuak, mintegiak, azokak, baliabideen alokairu zein erosketa, argitalpenen edizioa edota egokia den beste edozer aurretik aipaturiko helburuak lortzeko bidean.

Art. 3.- Egoitza eta lurralde eremua.

1. Iruñean finkatzen da egoitza soziala, Alzania Ibaia kalea, 23-2.A, PK 31006, lurralde eremuaren barnean lekualdatua izatekotan jakinarazia izanen zaio Elkartearen Erregistroari.

2. Nafarroako Foru Komunitatean egingen dira gehienbat jarduerak, puntualki beste leku batzuetan egin antolatu edo haietara bertaratzeko aukera egonen dela baztertu gabe.

4. Art.- Iraupena.

Elkartea zehaztu gabeko iraupenaz sortzen da, Estatutu hauen edo legeen deuseztapenaren kasuan izan ezik.

II. TITULUA

GOBERNUAREN ETA ERREGIMEN ADMINISTRATIBOEN ORGANOEZ

5. Art.- Gobernu organoak.

Batzar Orokorra eta Zuzendaritza Batzordea dira Elkartearen gobernu organoak.

6. Art.- Batzar Orokorra.

1. Batzar Orokorra da Elkartearen organo gorena, asoziaturiko pertsona guztiek eratua dagoena.

2. Batzar Orokorraren misioa Elkartearen gidalerroa ezarri eta honen helburuen betetzea bermatzea da.

7. Art.- Batzar Orokorraren bilkurak.

Batzar orokorra normalean urtean behin elkartuko da gutxienez, lehendabiziko hiruhilabetean ahal delarik eta baita Zuzendaritza Batzordeari gutxienez asoziatuen %20k eskatzean edota Batzordeak berak hala erabakitzen duen aldiro.

8. Art.- Deialdia eta quoruma.

1. Batzar Orokorraren deialdiak, ohiko zein ez-ohikoak, idatziz eginak izanen dira, posta zein posta elektronikoko bidez. Aipatu deialdiok lekua, data eta ordua zehaztu behar dute, lehenengo zein bigarren dialdietan, eta baita seinaturiko eguneko gai ordena ere. Deialdiaren eta bilkura egunaren artean zazpi egun naturaleko tartea egon beharko da gutxienez.

2. Batzar Orokorrak eskubidea izanen du erabakiak hartzeko, ohiko zein ez-ohiko saioetan, betiere saioetara asoziatuen %50 baino gehiago pertsonalki edo ordezkaturik agertzen bada lehenengo saioan, edota bigarren saioan, ordu erdi beranduago, agertutakoen zenbakia dena delakoa izanik.

9. Art.- Akordioen balioa.

Batzar Orokorraren akordio edo erabakiak bertaraturikoen gehiengoaren botuaren arabera hartuko dira. Hala eta guztiz ere, bertaraturikoen gehiengo gaitua beharko da, baieztokoak botuemaleen erdia gainditzen duenean emanen dena.

- a) Elkartearen disoluzioa.
- b) Estatutuen moldaketa.
- c) Antolaketa edo ondasunen besterentzea
- d) Pertsona asoziatuen egozte.

10. Art.- Bozkaketak.

Bozketak ohiko edo irekiak izanen dira eta sekretuak Lehendakaritzak edota asoziaturikoen %10ek gutxienez hala eskaturik bada. Harturiko edozein akordio edo erabaki dagokion aktan bildua izanen da.

Zuzendaritza Batzordea hautatzeari dagozkion botuak sekretuak izanen dira beti.

11. Art.- Batzar Orokorreko Lehendakaritza eta idazkaritza.

1. Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaritza izanen da Batzar Orokorraren buru, edo hau faltatzekotan, Lehendakariordetza, Zuzendaritza Batzordeko kideen laguntzaz. Lehendakaritza zein Lehendakariordetzaren falta egotekotan, Zuzendaritza Batzordeko adinduen izanen da Batzar Orokorreko buru.
2. Idazkaritza lanak eginen ditu hauek Zuzendaritza Batzordean egiten dituenak, edo, bere ausentzia egotekotan, lan horiek egiteko baldintzatan dagoen Batzordeko beste kide batek.
3. Bilkura guztietan bilduko da akta, dagokien liburuan geratuko dena.

12. Art.- Batzar Orokorraren gaitasunak ohiko saioan.

Ohiko saioan Batzar Orokorra hurrengo kontuak argitu eta erabakitzeko gai izanen da:

- a) Lehendakaritza eta Zuzendaritza Batzordea izendatu, berri edo ezeztatzeko.
- b) Lehendakaritza eta Zuzendaritza Batzordeen kudeaketa onartzeko.
- c) NAFAR IDAZLEEN ELKARTEA - ASOCIACIÓN NAVARRA DE ESCRITORES/AS -en jardueren urteko memoria onartzeko.

13. Art.- Batzar Orokorraren gaitasunak ez-ohiko saioan.

Ez-ohiko saioan Batzar Orokorra gai izanen da hurrengo gaien inguruan argitu eta erabakiak hartzeko:

- a) Estatutuen erredakzio zein moldaketa.
- b) Erregimenaren barne araudiaren onarpena.
- c) Ondasunen antolaketa eta besterentzea.
- d) Bazkideturiko pertsonen kanporatzea Zuzendaritza Batzordeak proposaturik, aurretik espedientea irekia izanik betiere eta interesaturiko pertsonen entzunaldiarekin.

14. Art.- Zuzendaritza Batzordeaz eta honen osaketaz.

- 1.- Zuzendaritza Batzordea zenbaki bakoitia duen kide kopuruak osatuko du, gutxienez bost kide eta gehienez 15 izanen dituelarik, eta genero aldetik orekaturik (ezin izanen da desberdintasuna kide batekoa baino gehiagokoa izan), eta betiere Lehendakaritza, Lehendakariordetza eta Idazkaritza barnean direlarik. Zuzendaritza Batzordeak berak esleitu ahal izanen dizkio bere kideei ardura zehatzak.
2. Zuzendaritza Batzordeko kide izateak ez du ordainsaririk ekarriko. Hala ere, bertako kideek kalte-ordainketaren bat jaso dezakete haien kargutan egindako gastuengatik.

15. Art.- Zuzendaritza Batzordearen gaitasunak.

1. Zuzendaritza Batzordearen zeregina da Batzar Orokorrean harturiko akordioak betetzea, Elkartearen jarduerak zuzentzea eta honen gestio administratibo zen ekonomikoak kudeatzea.

Batzar orokorra urteko gastu zein diru-sartzeaz jakinaraztea, baita aurreko urteko kontuen egoeraz ere eta Elkartearen Estatutuekin bat datozen izpiritu zein edukiak betetzen dituztela kontuan harturik, zenbat eta ekimen gehiago sustatzea.

2. Bere gaitasun eta betebeharrak kontuan harturik, behar bezain beste jarduera burutuko ditu.

16. Art.- Zuzendaritza Batzordearen saioak.

1. Zuzendaritza Batzordea lau hilabeteetan behin bilduko da gutxienez, edota bere Lehendakaritzak egoki deritzonean, bere inizatibaz ala bere kideetako edozeinen eskaeraz edota bazkideen %20k eskatua bada. Bere absentsian, saioa Lehendakariordetzak bideratua izanen da, edo honen faltan, Batzordeko pertsona adinduenak bideratua. Idazkaritzak akta hartuko du, dagokion liburuan transkribatua izanen delarik, eta honen titularraren absentsian, kide gazteenak hartuko duelarik ardura hau. Gainontzeko kideen absentsia ez da hornitua izanen.

2. Zuzendaritza Batzordearen akordioak baliokoak izan daitezten botuen gehiengoak onartuak izan beharko dira, hau da, erdiak baino gehiagok onartuak.

17. Art.- Zuzendaritza Batzordearen hautaketa.

1. Bazkide guztiek aurkeztu ahal izanen dute euren burua Zuzendaritza Batzordearen hautagaitzara.

2. Hautagaitzek zenbaki bakoitia osatu beharko dute, bost kideko gutxiengo eta hamabosteko gehiengo ziurtatuz, genero orekaz eta Lehendakaritza, Lehendakariordetza eta Idazkaritza ardurak nork hartuko dituen seinatuz.

3. Hautaketa Batzar Orokorrak egingen du botu libre eta sekretuaz. Kide bakoitzak hautagaitza bakarrari eman ahal izanen dio botua. Gehiengo absolutua lortzen duen hautagaia izanen da hautatua; lehen bozkaketan inork lortzen ez badu, bigarren batean izanen da hautatua, botu gehien lortu dituzten bi hautagaien arteko bigarren bozkaketa bat eginez eta bigarren honetan gainetik geratzen dena hautatua izanik.

4. Zuzendaritza Batzordeko kideen ardura kasu hauetan bukatuko da:

a) Agintaldiaren bukaera. Zuzendaritza Batzordearen agintaldiak bere hautaketatik hasita lau urte iraunen du. Zuzendaritza Batzorde berriaren hautaketa bitarte jarraituko dute haien zereginetan.

b) Idatziz aurkezturiko borondatezko dimisioa.

c) Heriotza ala karguan aritzea oztopatzen dion gaixotasuna.

d) Bazkide gisa baja ematea.

e) Batzar Orokorraren erabakiaz baliogabetzea gauzatzea.

5. Agintaldian zehar egonen diren bete gabeko karguak Zuzendaritza Batzordearen erabakiz estaliko dira, zeinak ospatuko den lehendabiziko Batzar Orokorrak berretsi beharko dituen.

18. Art.- Lehendakaritza.

Honako ardura hauek izanen ditu Elkarteko Lehendakaritzak:

a) Legalki Elkartea ordezkatu.

- b) Zuzendaritza Batzorde zein Batzar Orokorraren saioen deialdia egin, hauek bideratu eta bukaera eman; bataren zein bestearen deliberazioak bideratu eta berdinketaren kasuan, erabakitze botuaren ardura izanik.
- c) Adostutako ordainketak agindu eta kobratzekoak ordaindu.
- d) Elkartearen izenean mota guztietako jarduera zein kontratu guztiak hitzartu.
- e) Idazkaritzarekin batera legal edo estatuki egokiak diren dokumentuak sinatu.
- f) Orokorrean, Zuzendaritza Batzordeari dagozkion ardurak betetzea, bertako beste inori ez badagozkio.

19. Art. -Lehendakariordetza.

Lehendakariordetzari dagokio:

- a) Lehendakaritzarekin honen lanetan elkarlanean aritzea eta hau bera ordezkatzeari bere faltan.
- b) Lehendakaritzak, Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Orokorrek delegatzen dizkion zereginak gauzatu.

20. Art.- Idazkaritza.

Idazkaritzari dagokio:

- a) Batzar Orokorraren eta Zuzendaritza Batzordearen bilera guztietan akta jasotzea.
- b) Elkarteko akta liburu, artxibo, bazkideen erreistro, inbentario, giltza eta zigiluak zaintzea.
- c) Diru-sartze eskaerak jaso eta bideratzea.
- d) Ziurtagiriak bidaltzea.
- e) Lehendakaritzaren izenean Batzar Orokorraren saioen deialdiak egitea eta korrespondentzia tramiteak egitea.
- f) Urteko Memoria erredaktatu eta aurkeztea.
- g) Elkartearen fondoak zaindu eta kontabilitate liburua eguneratua mantentzea.
- h) Aurrekontu eta balantze ekonomikoak prestatzea.
- i) Elkarrekin sortutako gastuen ordainketa aginduak tramitatzea, non, Lehendakaritzaren ikusketaz gain, bere firma agertuko den.

III. TITULUA

ELKARTEKO BAZKIDEAK. HAIEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

21. Art.- Bazkideak.

1. Euren onarpena eskatu ahal izanen dute, adin nagusikoak izanik, Nafarroa Garaian jaio, bizi edota harekin lotura estua dutela frogatzeko gaitasuna izateaz gain, bertako hizkuntzako batean gutxienez obra bat argitaratu dutenek, edozein delarik honen genero eta formatua.
2. Pertsona hauen onarpena Zuzendaritza Batzordearen esku geratuko da, Batzar Orokorraren lehenengo saioan berretsirik izanen delarik.

22. Art.- Bazkideen onarpen modalitateak.

Bazkideak izanen dira:

- a) Zenbakizkoak, adin nagusiko pertsona fisikoak, zeintzuk Estatutu hauen arabera onartuak diren.
- b) Ohorezkoak, euren prestigio edo laguntza nabarmenagatik Batzar Orokorrek horrela izendaturikoak.

23. Art.- Bazkideen eskubideak.

1. Zenbakizko bazkideen eskubide dira:

- a) Batzar Orokorreko saioetan parte hartzea, hitz eta botuaz.
- b) Zuzendaritza karguetarako hautesle zein hautagarri izatea.
- c) Elkartearen gobernuko organoen inguruko informazioa jasotzea eta baita bere kontuen egoeraren eta jardueraren garapenaren berri izatea ere.
- d) Neurriak hartu aurretiko entzunaldia izatea eta neurri hauek harrarazi dituzten gertaeren berri izatea, zigorrik izatekotan, hau ezarriko duten akordioa arrazoituz.
- e) Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan, abenduaren 13koan, aurreikusitakoaren arabera, Zuzendaritza Batzordearen bitartez Elkartearen dokumentaziorako sarbidea izatea.
- f) Elkartearen jardueretan parte hartzea eta erabilera komuneke ondasun eta instalazioak erabiltzea, errespetuz eta gainontzeko bazkideen eskubide beraz.
- g) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorren akordioen kontrako errekursoak aurkeztea.

2. Ohorezko kideek zenbakizkoen eskubide berak izanen dituzte, a) eta b) ataletan aipaturikoak salbuespen. Hala eta guztiz ere aipaturiko, Batzar orokorraren saioetara joan ahal izanen dira, hitzaz baina boturik gabe.

24. Art.- Bazkideen betebeharrak.

Bazkideen betebehar dira:

- a) Elkartearen helburuekin bat egin eta hauen lorpenerako elkarlanean aritzea.
- b) Estatutu hauetan jartzen duena eta Zuzendaritza Batzordeak zein Batzar Orokorrek harturiko akordioak onartu eta betetzea.
- c) Estatutuen arabera haiei dagozkien diru-ekarpenak egiteaz gain, kuotak eta derramak ordaintzea. Ohorezko bazkideak honetatik salbuetsita egonik.
- d) Estatu-antolaketari daozkion gainerako zereginak betetzea.

25. Art.- Bazkietza galtzea.

1. Bazkietza honako arrazoi batenatik bukatuko da:

- a) Bazkidearen borondateagatik. Honetarako nahikoa izanen da Zuzendaritza Batzordeari zuzenduriko dimisioa aurkeztea. Ondorioak aurkezpenaren datatik bertatik berehalakoak izanen dira.
- b) Estatutuek aipaturiko betebeharren urratzearen ondorioz hasitako egozte prozesuagatik.
- c) Heriotzagatik.

2. Diziplinazko zigor modura bazkietza kondizioa galtzeko beharrezkoa izanen da Zuzendaritza Batzordearen akordio arrazoitua, legalki emaniko botuen 2/3ek onarturik eta Batzar Orokorrek berretsirik.

VI TITULUA ONDARE FUNDAZIONALAZ ETA BALIABIDEEZ

26. Art.- Ondarea.

Elkarteak ez du hasierako ondarerik.

27. Art.- Aurreikusitako Baliabideak.

Elkartearen baliabide izanen dira:

- a) Administrazio zein Instituzio publikoetatik erdietsitako diru-laguntzak eta baita beste pertsona fisiko zein juridikoen dohaintzak ere.
- b) Bere helburu zehatzei jarraiki Elkarteak eginiko jarduera edo kolaborazioei esker lorturiko diru-sarrerak.
- c) Batzar Orokorrak hartutako erabakien arabera bazkideen kuotak.

28. Art.- Jardunaldi ekonomikoa.

Aurrekontua eta kontabilitatea.

1. Jardunaldiaren itxiera data abenduaren 31 izanen da.
2. Zuzendaritza Batzordeak ondarearen irudi fidagarria ahalbidetuko duten kontabilitate liburuak eramanen ditu. Eta existitzekotan, Elkartearen diru-sarrera eta gastuen informazio zehatza eta baita honen egoera finantziarioa ere.
3. Batzar Orokorrak urtero onartuko ditu Elkartearen kontuak, behin jardunaldia bukaturik.
4. Urteko aurrekontuaren muga 250.000€-tan kokatzen da.

V TITULUA DISOLUZIOAZ ETA LIKIDAZIOAZ

29. Art.- Disoluzioa.

Elkartea Legearen edo bazkideen borondatearen arabera arrazoiengatik disolbatuko da, Batzar Orokorraren ez-ohiko saioan adosturik.

30. Art.- Likidazioa.

1. Elkartearen disoluzioak likidazioaldi bat irekiko du, zeinetan Zuzendaritza Batzordea Likidazio Batzorde bilakatuko den, salbu Batzar Orokorrak horretarako espreski izendaturiko Likidazio Batzorde bati ematen badio zeregina.
2. Nolanahi ere, Likidazio Batzordeak 18. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan adierazitakoa bete behar du, 1/2002 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, dioen modura.
3. Behin zorrak deuseztaturik hondarrik geratuko balitz, hauek Elkartearen irabazirik gabeko asmoa errespetatuz, mezenasgoaren onurendako entitate bati edota interes orokorreko helburuak dituzten entitate bati bideratuko zatzaizkio osotasunean.